

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:

“Sagardoa eta itsasoa” esperientzia turistikoaren aurkezpena eta euskal sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko eskaintza turistikoa bildu eta sustatuko duen marka berriaren aurkezpena.

Data: 2012ko ekainak 13

Ordua: 12:00

Aurkezpenaren tokia:

Donostiako Aquarium-a
Carlos Blasco Imaz enparantza, 1.
20003 Donostia-San Sebastian.

Ekitaldiaren deskribapena:

Batetik, “Sagardoa eta itsasoa” esperientzia turistiko berria aurkeztuko da. Esperientzia honek, sagardoak antzinako itsas bidaia luzeetan eskorbutuari aurre egiteko izan zuen garrantzia **ezagutara** ematen du modu **dinamiko eta parte-hartzailean**. Hala, bisitariak **Sagardoetxea**, **Euskal Sagardoaren Museoa** (Astigarraga), **Aquarium-a** (Donostia) edo **Ondartxo** (Pasaia) bezalako museok bisitatzeke, **itsasontzian ibilaldi gidatua** egiteko eta **sagardotegiko bazkari batean** gaiarekin lotutako **gastronomiaz** gozatzeko aukera izango du.

Bestalde, bederatzi urteetako ibilbidearen ostean, aurrerantzean **euskal sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko eskaintza turistikoa bildu eta sustatuko duen marka berria** aurkeztuko da.

Ekitaldiko hizlariak honakoak izango dira:

- Andoni Gartzia, **Sagardun Partzuergoko Lehendakaria**.
- Vicente Zaragüeta, **Aquarium-go Lehendakaria**.
- Xabier Agote, **Albaolako Lehendakaria**.

Ekitaldia, ETB-ko “**CHILOÉ**” bidaia eta kulturen saioko aurkezlea den Xuban Intxaustik gidatua izango da.

Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta. Prentsa arduraduna.

Telf: 943 550 575

e-maila: info@sagardun.com

Sagardun-en inguruan: Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen entitate publiko-pribatua da. Gaur egun Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa eta Sagardo Berriaren Eguna (txotx irekiera) kudeatzen ditu eta sagardoaren kultura sustatzen du esperientzia turistiko ezberdinen bitartez.